

## “Elikadura subiranotasuna, transgenikorik gabeko” 2008ko Martxoaren



### ELIKADURA SUBIRANOTASUNA, TRANSGENIKORIK GABEKO BORROKAK ARTIKULATZEN

2008ko martxoaren 15ean eta 16an, transgenikorik gabeko nekazaritzaren eta elikaduraren aldeko kanpainen inguruan, borrokak eta estrategiak artikulatzeko topaketa bat ospatuko da. Topaketa hau, batez ere ingeniari-tza genetikoaren kontra dauden Iberiar Penintsula mailako gizarte-mugimenduentzat eta janariak produzitzen dituzten mundu mailako gizakitaldeentzat (nekazariak, indigenen eta hirietako ortuzainen elkarteak, etab.) pentsatu da. Zentzu horretan topaketa hasiera batean EHNE euskal nekazaritza-sindikatuak sustatutako eta hurrengo hauen lankidetzarekin egindako ekimen bateratua da: Via Campesina, GRAIN, Greenpeace, Lurraren lagunak, Ekologistak Ekintzan “Sembrando e Intercambiando” Hazi Sarea, Herri-artekoa eta COAG. Euskal Herrian egingo da (Espainiar Estatuko aldean).

Ekimena hau, elikadura-subiranotasunaren aldeko eta nekazaritzan eta elikaduran genetikoki eraldatutako organismoen (GEO) kontrako borrokan aritzeko funtsezko une batean antolatu da.

- Azken urteetan, janari transgenikoen kontra hiritarrek izan duten jarrera tinko mantendu da, ingeniari-tza genetikoaren enpresek egindako izugarritzko presioa eta Planetako leku ezberdinetan gobernu askok transgenikoen alde izandako jarrerak eta ekintzak izan arren. Geroz eta handiagoa den, informazio zientifiko eta ekonomikoak, arrazoiak ematen dio hiritarren gaitzespen horri.
- Europar Batasunea zehazki, herrialdeetako eta estatuetako gobernu asko gero eta argiago eta gehiago, Europako batzordeko gehiengoaren transgenikoen aldeko jarreratik aldentzen doazela ikusten da. Horrela, Europako estatu kide ezberdinek GE barietate jakin batzuei luzamenduak jarri dizkie. Ingurumeneko Komisarioak berak arto-barietate berriak ukatzeko asmoa du eta, horrez gain, jadanik merkatuan dauden GE barietate batzuk, hala nola MON810 jadanik legez kontrakoak dira. Azken hauek, legediak markatzen duen onarpena ez baitute gainditu. Laborantzan, GETik libre dagoen Europa baten atarian gaude eta hau, GEOTik libre dagoen mundu mailako borrokari izugarritzko mesedea egingo dion, mugarri bat izango da.
- Europako testuinguruan, Iberiar Penintsulak, ereiteko GE barietateentzako azalera gehin daukan lekua izaten jarraitzen du. Beraz, tokiko gizarte-mugimenduek hartzen dituzten estrategiak, GEOTik libre dagoen munduaren aldeko borrokan, funtsezkoak dira.

Topaketa hurrengo oinarritzko printzipioen inguruan antolatu da:

1. Transgenikoetatik libre dagoen nekazaritza eta elikadura, hala ekologikoak nola konbentzionalak/tradizionalak bermatzeko beharra.
2. GE kutsadurari zero tolerantzia jarduera guztietan eta baserriko eta elikadurako produktu guztietan.
3. Baserriko eta elikadurako GE produkzioaren eta ez-GE produkzioaren arteko baterako existentziaren ezintasuna.

## “Elikadura subiranotasuna, transgenikorik gabeko” 2008ko Martxoaren



4. Elikadura-subiranotasunerako eta janariak produzitzen dituztenek duten biodibertsitatea erabiltzeko eta kontserbatzeko eskubidea, bateraezinak baitira biak GE nekazaritzarekin eta elikadurarekin.

Topaketaren helburu nagusiak, parte hartzen duten antolakundeen helburuak sustatzeko, goian zehaztutako oinarritzko lau printzipioak bermatzeko, estrategia komunak analizatzea eta artikulatzea dira. Iberiar Penintsulako mugimenduen eta mundu mailako baserriarren artean, informazioa konpartitu eta ahots sendo eta argi baten irudikapena erraztu nahi da, GEotik libre dagoen nekazaritzaren aldeko mugimenduan.

Hurrengo gaiak aztertzea proposatzen da

1. Nola mantendu, sustatu edota berreskuratu GEotik libre dauden nekazaritzako eta elikadurako produkzio-sistemak
  - a. Merkatuan, GE laboreen barietateak edo GE ez diren laboreen kutsaduraren inplikazioak.
  - b. Ganaduen janarietako inplikazioak: GEotik libre dagoen ganaduen janaria, ganaduen janariaren tokiko produkzioaren testuinguruan (GEotik libre dauden soja eta artoa urrats bat baino ez da).
  - c. Janariak produzitzen dituzten tokiko biztanleen eskuetan dauden, baserrietako eta tokiko hazien barietateak, GEotik libre dagoen nekazaritzarako duten garrantzia.
  - d. Kontsumo arduratsuaren garrantzia: tokiko merkatuak, kontsumo-ohiturak, GEtik libre dauden janariak.
  - e. GEotik libre dauden eremuen deklarazioen zeregina
  - f. MMEren zeregina eta EBrako NPKren erreforma, GEotik libre dagoen nekazaritzarako.
  - g. GEotik libre dagoen nekazaritza eta elikadura eragozten edo errazten duen indarreko legeria.
2. GEotik libre dagoen, bai nekazaritza, bai elikadura bermatzeko orduan emakumeek duten zeregin berezia
3. GEotik libre dagoen mugimendua mehatxatzen duten erronka berriak: mutegenesia, nanoteknologia, biologia sintetikoa, terminatorra, patenteak, klima-aldaketa, nekazaritzako erregaiak...

Helburu nagusia, kasu guztietan, borroka-estrategiak identifikatzea eta artikulatzea dela, azpimarratzen da.

Ekimen hau, mundu mailan, janariak produzitzen dituzten antolakunde guztiei (baserriarrak, indigenen erkidegoak, arrantzaleak, hirietako ortu-taldeak...) eta Iberiar Penintsulako gizarte zibilaren mugimendu guztiei dago irekita; baina bi kasuetan goian zehaztutako oinarritzko printzipioekin ados dauden erakundeei zuzenduta dago. Topaketan egiten diren estrategia komunei buruzko eztabaidetarako abiapuntua, printzipio horiek izango dira.

**“Elikadura subiranotasuna, transgenikorik gabeko”  
2008ko Martxoaren**



Topaketak bere enfasi handiena lan-taldeetan jarriko du. Sarrerako osoko bilkura laburrak eta lan-talde bakoitzaren gogoeten bateratze-lanak egingo dira.

Urtarrilean, ekimen hau sustatzen duten antolakundeek web orrietan hurrengo gai buruzko informazioa emango da: aztertuko diren gai konkrituak eta tailerretako lan-metodologia, nola erregistratu edo informazio gehiago eskatu, eta topaketa egingo den lekuari, garraioari, ostatuari eta abarri buruzko informazio logistikoa. Era berean urtarrilean baieztatuko da baserrietako haziei buruzko alde aurreko jardunaldiaren proposamena.